

Donostian, Diputaziñoan, bildu dira: Ignacio Maria Etxaide jauna, buru, Oleaga, Lekuona, Aita Villasante, Gorostiaga, Irigaray eta Arrue jaun euskaltzaiñak. Zugasti, Arruza, Aita Larrañaga apezpikua eta Irigoyen jaun urgazleak.

Anai Berriotxoak ezin etorria adierazo dau. Mitxelena jauna ezta etorri gexorik dagoelako.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Aurreko batzarreko agiria irakurri da eta ontzat artu da.

Aurreko batzarrean erabagi zanez Bilbon egin bear zan bertsolarien jaia ezta egin eta itxi bedi Errege egunerako. Ondarruako Teatro Taldea be gertetan dabil "Kresaletan" deritxon obra bat. Eroan bedi talde ori Bilbora jai bi egiañik. Bata bertsolariena eta bestea teatrozkoa.

Irigoyen jaunak Eneko Irigaray-k idatzi deutson karta bat irakurri dau. Bertan Gipuzkoako teatro-taldeen artean Euskaltzaindiak txapelketa bat egin daien oiñarriak dagoz. Baiña sariak diruzkoak izango direala esan arren eztiño zenbait peseta-koak izango direan. Erantzun bekio zeatz esan daijala nok eta zenbat diru emoteko aukerea dagoen eta ori jakiñik egin bedi txapelketea eta zientau bedi juradua.

Migel Arruza jaunaren karta bat irakurri da. Bertan eskatzen dau aurreko batzar batean ontzat artu zirean oiñarriari jarraiturik al bait ariñen izentetako batzarburuzagi jagon-saillekoa. Oleaga, Arrue, Mitxelena, Gorostiaga eta Lafitte jaunak zientau dira, eta urgazleen artetik Arruza, Loidi, eta Diez de Ulzurrun. Urrengo batzarrean burua zientau bedi.

Aita Villasante-k lan bat irakurri dau eta bertan diño Euskaltzaindiak bere gramatika bat egin bear leukeala. Ontzat artu da asmoa eta Oleaga jaunaren eskabidez Aita Villasante bera izan bedi orretan lan egingo dauena Euskaltzaindiko batzarretara ekarririk lanak egiñala.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.